

BIGARREN HEZKUNTZARAKO UNITATE DIDAKTIKOA

Nafarroako Parlamentua

Lan-irtenaldia

José Ignacio Juanbeltz Martínez / Rubén Riancho Andrés



PARLAMENTO DE NAVARRA
NAFARROAKO PARLAMENTUA

«DEMOKRAZIA DA
GOBERNU-SISTEMARIK OKERRENA,
KONTUAN HARTZEN EZ BADIRA
SAIATUAK IZAN DIREN
GAINERAKO SISTEMA GUZTIAK»

WINSTON CHURCHILL
ERRESUMA BATUKO LEHEN MINISTROA (1940-45, 1951-55)

Izenburua Nafarroako Parlamentua. Lan-irtenaldia
Bigarren Hezkuntzarako Unitate Didaktikoa

Egileak José Ignacio Juanbeltz Martínez eta Rubén Riancho Andrés

Itzulpena Ander Arana Bareño, Xabier Aristegieta Okiñena, Ainhoa Irazustabarrena Barriola,
Mikel Iriarte Zilbeti eta Ander Irizar Apaolaza

Argitalpena Nafarroako Parlamentua,
Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren laguntzarekin

Diseinua KEN

Aurkibidea

Irtenaldia baino lehen **7**

Irtenaldiko jarduerak **13**

Kokalekua **14**

Batzorde-aretoa **18**

Osoko Bilkuren aretoa **20**

Parlamentua iruditan **22**

Elkarrizketa **25**

Parlamentua komunikabideetan **26**

Nire oharrak. Parlamentuko anekdotak **29**

Lan-irtenaldiari buruzko iritzi orokorra **30**

Gutxieneko Ibilbidea **31**

Nork osatzen du Parlamentua? **33**

Zertarako balio du Nafarroako Parlamentuak? **36**

Nola egiten da lan Nafarroako Parlamentuan? **39**

Sintesia **42**

Ebaluazioa. Koebaluazioa **43**

IRTENALDIA
BAINO LEHEN

Zer ikasiko dugu?

Nafarroako Parlamenturako Lan-irtenaldiak honako hauetarako aukera emanen dizu:

- Parlamentuak Iruñean duen kokalekua eta haren ingurunea ezagutzeko.
- Zure ikastetxetik Parlamenturaino iritsi arte egiten duzun ibilbidean zehar kokaturiko zenbait jakingarri identifikatzeko (hala nola herriak, mendiak, ibaiak, kaleak, plazak, eraikinak... betiere, abiatzen zareneko tokiaren arabera).
- Parlamentuko egoitzako aretoetatik ibiltzeko, eta aipagarrienak identifikatzeko (Osoko Bilkuren aretoa, batzorde-aretoak, prentsa-aretoa...). Helburua da zuk parlamentarien eginkizunak beren lantokian kokatzea, beren jardueretan erabiltzen dituzten elementuak eta lanabesak ikusiz.

Emanen zaizkizun azalpenetatik informazioa bildu behar duzu. Gainera, nahi duzuna galde dezakezu. Baina ez ahaztu arretaz, arduraz eta begirunez jokatu behar duzula, autobusean, kalean eta Parlamentuan ikusten dituzun pertsonekin edo gauzekin.

Nola egingen dugu?

Bisita baino lehenago

Egitera zoazten ariketen helburua da taldean lantzea Parlamentuan ikusiko dituzuen pertsoneri egin beharreko galderak, eta mapa batean adieraztea Parlamenturaino egingen duzuen ibilbidea.

Galderei dagokienez, gogoan izan ikasiko dugula non dagoen Nafarroako Parlamentua, noiztik, nork osatzen duen, zertarako balio duen (hau da, zer eginkizun dituen), nola egiten duten lan parlamentariak, zer problemarekin egiten duten topo eta abar. Galderak guztion artean presta ditzakezue klasean, horrela zerrenda aski luzea egin ahal izateko. Ez ahaztu ezen, galdera orokorrekin batera, komenigarria dela zehatzagoak diren beste batzuk ere egitea, parlamentariei berei buruzkoak (baten bati elkarrizketa eginez gero), edo Parlamentuan lan egiten duten pertsoneri buruzkoak (gidaria, polizia, gelazainak...). Eska itzazue eskuorriak eta planoak, eta ulertzen ez duzuen edozeri buruz lasai galde ezazue.

Parlamentuaren kokalekuari eta bere osaerari buruzko ariketak egiteko, informazioa daukazue dossierrean.

Bisitari zehar

Ibilbidean zehar, taldeak ikusi eta identifikatu egingen ditu mapetan adierazi ditugun jakingarriak. Horrez gain, taldeak Parlamentutik hurbil dauden kale aipagarri batzuk eta inguruetako eraikin nagusiak identifikatuko ditu. Iruñeko planoak erabiliko dugu.

Jarraian, honakoetarako lanak gure artean banatuko ditugu:

- Osoko Bilkuren aretoaren krokisa marraztea, elementu nagusien aipamena ere eginez.
- Batzorde areto baten krokisa marraztea, elementu nagusien aipamena ere eginez.
- Parlamentuko zenbait elementu garrantzitsu identifikatzea eta haien zeregina jakitea.
- Baimena ematen badigute, argazkiak hartuko ditugu, bai orokorrak, bai xehetasun batzuenak. Argazki horiek krokisen baten ordeztu daitezke, baina ez guztien ordeztu.
- Klasean landu ditugun galderak egin eta erantzunak idatzi.

Bisita eta gero

Parlamenturako bisitari eta erakunde horren azterketari buruzko dossier bat egingen dugu. Irtenaldia baino lehenago, irtenaldian zehar eta irtenaldiaren ondoren egin ditugun ariketa guztiei izenburua eta zenbakia ipiniko dizkiegu. Dossier bat prestatuko dugu, eta bertan erantsiko ditugu irtenaldian eskuratutako irudiak, edo internetetik hartutakoak.

Irtenaldi honen zer-nolakoak tutoretza-ordu batean aipatuko dira eta, kasuren batean, irakasle eta ikasleen artean adostu ere bai; hots: ordutegia, egin beharreko ariketak, itzulera eta abar.

Nola moldatuko gara?

Bisita eguna:

Ordutegia. Irteera:

Itzulera:

Bestelako alderdiak:

Baliabideak. Arropa eta oinetakoak:

Jan-edanak:

Lanerako materiala:

Karpeta eta orri zuriak. Irtenaldiari buruzko dosierra. Zorro batean, arkatza, boli-grafoa eta hiruzpalau margo. Argazki-makina, grabagailua (hautazkoa).

Lanari eta jokabideari buruzko arauak



Irakasleen laguntzarekin, klaseko taldean honakoak adostuko ditugu:

- Autobusean izan beharreko jokabidea.
- Kanean izan beharreko jokabidea (ibiltzean, hitz egitean, besteekin topo egitean, objektu, animalia edo landareen aldamenetik pasatzean...).
- Parlamentuan izan beharreko portaera eta lan egiteko modua (gauzak eskatzean «mesedez» hitza erabili, arreta izan, objektu garestirik ez ukitu, zakarrontziak erabili, komunak eta eskaintzen zaigun edozer erabiltzean kontuz ibili).

Irtenaldirako dokumentuak











Irtenaldiari buruzko dosierra.

Besterik:.

Lanaren maketa



Parlamentuari buruz egiten duzuen dosiererako lana ulertzeko, arretaz entzun irakasleek maketa honetan oinarrituz emanen dituzten azalpenak. Irakaslearekin eta taldearekin adosturik, ariketak aldatu eta haien ordeztatu beste batzuk egin ditzakezue, egokien iruditzen zaizuen moduan.



Zure lan-koadernoari hasiera emateko, lehenbizi **azala** eginen duzu. Zure lehenengo egitekoa izanen da. Saia zaitetz erakargarria eta originala egiten eta ongi osatuta egon dadin. Baliabide informatikoak erabil itzazu. Maketa honetan ikusiko duzun bezala, honakoak eduki beharko ditu:

**Zure lan-
koaderno
nola itxuratu**

- **izenburu** bat.
- **irudi** sendo bat, arreta deituko duena, balio demokratikoekin loturiko gairen bati buruzkoa (bizikidetasuna, parte-hartzea...).
- **zure datu** guztiak.

Izenburua

irudia

Izena:

Arloa:

Maila:

Ikastetxea:

Irakaslea:

Azala egin ondoren

Bigarrenik, beste orri batean, lanarekin lortu nahi dituzun helburuak idatziko dituzu.

Esate baterako:

ZER LANDUKO DUGU?

○ Zer ikasiko dut Nafarroako Parlamentuari buruz?

○

○

○

○

EZ AHAZTU

Zure irakaslearen laguntzarekin, bisita ezazu Nafarroako Parlamentuaren Ikasgela Birtuala: www.parlamentodenavarra.es/ikasgelabirtuala

- begira ezazu nola funtzionatzen duen.
- zein informazio ematen dizkizun.
- lan on bat egiteko eskaintzen dituen aukerak.

IRTENALDIKO JARDUERAK

1. ARIKETA


Kokalekua



1. ARIKETA

- Argazkian identifika eta koka itzazu honako leku bereizgarri hauek: Gazteluko Plaza, Nafarroako Gobernuko lehendakartzaren egoitza, Foruen Monumentua, Nafarroako Parlamentuaren egoitza, Baluarte, Ziadadela, Iruñeko Alde Zaharra.
- Koka itzazu argazkian iparraldea, hegoaldea, ekialdea eta mendebaldea.
- Zer da hiri bat? Ba al da kalez, etxez eta jendez osaturiko multzo bat baino gehiago ere? Inguruko herrietako biztanleak erakartzen dituen zer zerbitzu eskaintzen ditu? Nafarroako zein herritaraino hedatzen da Iruñearen eragina?

1. ARIKETA



1. ARIKETA

- Planoan adieraz ezazu Parlamenturaino iristeko egin duzun ibilbidea, bai eta bertatik irten ondokoa ere.
- Airetik hartutako argazkia planoarekin alderatuz, aurki itzazu argazkiko eraikin historiko-politiko nagusiak eta, halaber, kaleak.

2. ARIKETA

Batzorde-aretoa



ACTIVIDAD 2

- Batzorde-aretoko elementu bereizgarriak eta ofizialak adieraz eta izenda itzazu.
- Adieraz ezazu zein diren batzorde-aretoan esandakoa komunikatu eta grabatzeko elementu teknikoak.
- Idatz ezazu Nafarroako Parlamentuko batzorde batzuen izena eta azal ezazu zer gairi buruz arduratzen den haietako bakoitza.

3. ARIKETA

Osoko Bilkuren aretoa



3. ARIKETA

- Adieraz itzazu Osoko Bilkuren aretoko elementu bereizgarri eta ofizialak, eta izenda itzazu.
- Adieraz ezazu zein diren Osoko Bilkuren aretoan esandakoa komunikatu eta grabatzeko elementu teknikoak.
- Idatz ezazu zein tokitan dauden honako hitz hauek adierazten dituzten gauzak:
 - Eserlekuak
 - Parlamentuko Mahaia
 - Parlamentuko lehendakariarentzat gordetako tokia
 - Nafarroako Gobernuarentzat gordetako tokia
 - Bozketen emaitzen berri ematen duten panel elektronikoak
 - Mintzatokia

4. ARIKETA

Parlamentua irudietan

Nafarroako Parlamentuaren argazkiei (edo marrazkiei, krokisei...) oin-ohar argigarriak ipini. Behar dituzun orri guztiak erabili, eta horietan, honako une hauen berri eman:

- Parlamentura hurbiltzen ari zareteneko
- sarrera iristen zareteneko
- harrera-ekitaldiarena
- areto bakoitzean sartzen zareteneko, eta horrela, amaierara arte

Ez ahaztu taldearen eta zure ikaskideen argazkiak ere ipintzeaz, une hauetan ateratakoak: ikaskideak Parlamentuko ekitaldian parte hartzen, oharrak idazten, Iruñean zehar ibiltzen, eta abar.

4. ARIKETA

Elkarrizketaturiko pertsona:

Galdera:

Erantzuna:

Galdera:

Erantzuna:

Galdera:

Erantzuna:

Galdera:

Erantzuna:

Galdera:

Erantzuna:

6. ARIKETA

Parlamentua prentsan

Azken egun hauetan Parlamentuari buruz prentsan agertutako albisteak egunkarietatik ebaki eta orri batean itsatsi. Horrela osaturiko albistegiari izenburua jarri. Albiste horiei buruzko aipamen labur batzuk egin.

6. ARIKETA

6. ARIKETA

8. ARIKETA

Lan-irtenaldiari buruzko iritzi orokorra

Irtenaldi honetan, aurretik ez nekien zer ikasi dut?

Harritu egin nauten bitxikeriak.


Parlamentuari buruz daukadan iritzia.

Irtenaldi honetan izan dudan jokabidea eta jarrera.

Zer daukat hobetzekorik?

GUTXIENE KO
IBILBIDEA

Zer ikasiko duzu koaderno honetako ariketak egiten dituzunean?



Ondoren, Nafarroako Parlamentua ezagutzen sakontzeko **Lanerako Ibilbidea** osatzen duten bost ariketak aurkezten ditugu.

Bost ariketa horiek baliagarriak dira Lan-irtenaldian ikasitakoa osatzeko. Nafarroako Parlamentuaren espazioak kokatzeko eta ezagutzeko ez ezik, orain aukera izanen duzu Nafarroako Parlamentuaren funtzionamendua **analizatzen** eta ikasitakoa laburtzen, sintetizatzen eta ebaluatzen jakiteko ere.

Ariketa hauek Ikasgela Birtualeko ikasleentzako Lan-koadernotik atereak dira.


Honakoak dira Nafarroako Parlamentuari buruzko hiru alderdi garrantzitsuenak:

- Nork osatzen du Nafarroako Parlamentua?
- Zertarako balio du Nafarroako Parlamentuak?
- Nola egiten da lan Nafarroako Parlamentuan?

Beste bi ariketak baliagarriak izanen zaizkizu ikasitakoa **sintetizatzen eta ebaluatzen**.

Gehiago jakin nahi baduzu, Ikasgela Birtualean beste aukera batzuk ematen dizkizugu besteak beste honako hauekin zerikusia duten informazioak sakontzeko eta zabalatzeko: Nafarroako Parlamentua, Nafarroako Gorteen historia, Foruak, Foru Hobetzea, Espainiako beste legebiltzar batzuk eta Europako Parlamentua. DBHrako Lan-koadernoan topatuko dituzu, Ikasgela Birtualean.

Ulertuzko irakurketa, ikertzen ikasteko



Ariketa hauek egiteko, arretaz irakurri beharko duzu testua:

- Azpimarra itzazu ideia nagusiak eta gako-hitzak.
- Gogoan hartu beti izaten dela komenigarria testua 5 edo 6 lerrotan laburtzea.
- Azkenean, erantzun galderari.

Une hauetan, Nafarroako Parlamentua 50 parlamentarik osatzen dute, zeinak lau urterako hautatzen baitira sufragio unibertsalez. Lau urtez behin, gehienez ere, foru hauteskundeetarako deia egiten da. Hauteskunde horietan 18 urtez gorako nafar guztiak parte har dezakete. Hauteskunde horietan Nafarroako foru parlamentariak hautatzen dira.

Foru hauteskundeetara edozein pertsona aurkez badaiteke ere, aurkezten diren ia guztiak alderdi politikoen bitartez nahiz hauteskunde-taldeen bidez (alderdi politiko batek baino gehiagok osatuak) aurkezten dira.

Alderdi politiko bat da pertsona multzo bat, kausa komunak defendatzen dituen, antzeko iritzi eta ikuspuntuak dauzkana eta lurralde batean boterea lortzeko antolatzen dena. Futbol partida batean bezala, bi taldeek aurkaria garaitzeko jokatzen dute. Hauteskundeak datozenean, alderdi politikoek hauteskunde-kanpaina batean hartzen dute parte, eta elkarrekin lehiatzen dira gainerako alderdiek baino boto gehiago eskuratzeko, eserleku gehiago lortzeko eta hauteskundeetan garaile ateratzeko. Izan ere, horrela, boterea eskuratu ahalko dute.



9. Nork osatzen du Nafarroako Parlamentua?

Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkura

Parlamentarien eserlekuak biribil bat osatuz antolatuta daude. Horrela, aise ikus eta entzun diezaioke elkarri. Nafarroako Parlamentuko lehendakariak bilkuren zuzendaritza-lana egin eta hitza eman edo kentzen du. Bere aldamenean bi lehendakariorde eta bi idazkari esertzen dira. Parlamentari bat Osoko Bilkurari zuzentzen zaionean, Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren mahaiaren aurrean kokaturiko mintzatoki batera igotzen da.

Hauteskunde-kanpainan, hautatuak izan nahi dutenak, beren alderdietako beste pertsona batzuen laguntzarekin, Nafarroako herri eta hiri gehienetan barrena ibiltzen dira, eta boterera iritsiz gero zer egingen luketen azaltzen diote jendeari. Gobernu-programa bat ere idazten dute, eta bertan idatzizko konpromisoa hartzen dute, irabaziz gero, ekintza batzuk egiteko. Egunkariak, irratiek, telebistek, Internetek... hautagai guztien hitzaldiak jaso ohi dituzte, bai eta alderdi politikoen iragarkiak ere. Halaber, hautagaien baten alde botoa eskatzen duten pertsonen iritzi arrazoitua ere jaso ohi dute. Eta kalean, iragarkiak, pegatinak, liburuxkak, bozgorailuak dituzten autoak, ikusten dira; eta boligrafoak eta kamisetak banatzen dira publizitatearekin. Bai eta gozokiak ere! Eta guztia herritarren botoa eskatzeko. Hauteskunde-kanpainak hiru aste irauten du, eta hauteskundeak izan baino egun bat lehenago bukatzen da.

Hauteskunde-talde batek (bi alderdi edo gehiago) bere burua hauteskundeetara aurkezten duenean, taldea osatzen duten alderdiek akordio bat sinatzen dute, akordio horretan jasotakoa batera defendatzeko. Hartara, gauza guzti-guztietan ados ez badaude ere, jarduteko oinarri komun bat edukiko dute boterera iristen badira.



Hauteskunde kanpaina bateko mahai-ingurua

Hauteskunde-kanpainan, hautagaien arteko eztabaidak eta mahai-inguruak antolatzen dira. Horrela, herritarrek aukera izaten dute haiei buruzko iritzi bat egin eta horren arabera bozkatzeko.

9. Ariketak

1. Kopia itzazu azken bi hauteskundeetan Nafarroan parlamentu-ordezkaritza lortu duten alderdi politikoen inizialak edo siglak, eta haien esanahia esplika ezazu.

-
2. Jo ezazu Nafarroako Parlamentuaren webgunera (www.parlamentodenavarra.es), «Osaera eta organoak» atalean klikatu, kopia ezazu gaur egun Nafarroako Parlamentua osatzen duten foru parlamentarien zerrenda, eta sailka itzazu bakoitzaren alderdi politikoaren arabera.

-
3. Talde txikian eztabaida ezazu:

- Zergatik ezin duten botorik eman 18 urtez beherakoek. Ezintasun horren aldeko hiru argudio eta aurkako beste hiru pentsa itzazu. Argudio horiek idatzi eta klasekideei esplikatu.
- Pentsa eta idatz itzazu talde ezberdinetako parlamentariei egin ahalko zenizkiekeen bizpahiru galdera, gaur egungo problemei buruzkoak, gazteok dituzuen kezkei buruzkoak... parlamentari horien artean dauden iritzi-desberdintasunak jakin ahal izateko.
- Bizi izan dituzun hauteskunde-kanpainei buruz daukazun oroitzapenak zerrendatu eta laburbildurik azaldu.



10. Zertarako balio du Nafarroako Parlamentuak?

[Goian] Parlamentuko Osoko Bilkuraren eztabaida
 Foru Hobetzearen 11. artikulua Nafarroako Parlamentuaren eskumenak laburtzen ditu: «Nafarroako Parlamentuak Nafarroako herria ordezkatzen du, legegintza ahalmenaz baliatzen da, Nafarroako aurrekontuak eta kontuak onesten ditu, Foru Diputazioaren (Nafarroako Gobernu) ekintza kontrolatzen du eta antolamendu juridikoak esleitzen dizkion gainerako eginkizunak betetzen ditu».

Nafarrek lau urtez behin Nafarroako Parlamentua osatzen duten 50 parlamentariak hautatzen dituzte. Parlamentariak oinarrizko lau eginkizun betetzen dituzte: ordezkaritzakoak, legegintzakoak, ekonomiko eta finantzarioak eta Nafarroako Gobernuaren kontrolatzekoak.

1. Ordezkaritza eginkizuna.

50 parlamentarioak Nafarroako gizartearen ordezkaritza bat dira, zeren eta 18 urtez gorako pertsona guztiek hautatzen baitituzte; bestalde, alderdi politiko desberdinetakoak dira eta ideia desberdinak dituzte Nafarroak aurrean daukan arazo politiko, sozial edo ekonomikoak konpontzeko. Horrela nabarmentzen da biltzarreko eztabaidetan, bozketetan, akordioetan eta abarretan. Nafarroako Parlamentua Nafarroako gizartearen erakusleho txiki bat da, eta hautesle guztien sentipenak eta beren ikuspuntuak islatzen ditu.

2. Legegintza eginkizuna.

Nafarroako Parlamentua da Nafarroan indarra duten legeetako batzuk eztabaidatu, bozkatu eta onesten diren lekua. Lege bat egiteko ekimena parlamentariena beraiena izan daiteke, edo herritarrena, edo udalena edo Nafarroako Gobernuarena. Behin ekimena planteatzen denean edo Nafarroako Parlamentura iristen denean, prozesu bat jartzen da martxan. Prozesu horretan aukera ematen zaie parlamentari guztiei ezagut dezaten, eztabaida dezaten eta testua hobetzeko zuzenketak aurkez ditzaten. Amaieran, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran, ekimena onesteko edo ez onesteko bozketa izaten da. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean eta herritar guz-

tiek ezagutzeko aukera dutenean hartuko du indarra legeak. Hartara, onesten diren lege guztiak idatzita daude eta kontsultatu ahal dira.

3. Eginkizun ekonomiko-finantzarioa.

Aurrekontuak dira Nafarroako Parlamentuak onesten diren legeetatik garrantzitsuenetako bat. Lege horretan, Nafarroako Gobernuaren kasuan kasuko urteko diru-sarrerak eta gastuak zehazten dira. Herritarrek ordaindu behar dutena eta Gobernuak gizartearen onurarako egiten dituen gastuak. Foru lege proiektu horri lehentasuna ematen zaio tramitazioan, duen esanahiarengatik, eta urtero onetsi behar da. Onesten ez bada, aurreko urteko aurrekontuak luzatzen dira, halako moduan non Gobernuak jada eskaintzen dituen zerbitzuak (ospitaleak, hezkuntza, suhiltzaileak, errepideen mantentzea, zahar-etxeak eta abar) ez diren geratuko.

4. Jarduera politikoaren kontrola eta bultzada.

Nafarroako Gobernuko lehendakaria Nafarroako Parlamentuak hautatzen du. Bai lehendakaria bai kontseilariak (gai zehatzen ardura dutenak; esate baterako, merkataritza, garraioak, industria, osasun, hezkuntza...) parlamentariak egiten dizkieten eskariei erantzun behar diete, eta beren ekintzen eta proiektuen berri eman behar diete. Nafarroako Parlamentuak Gobernuaren jarduna kontrolatzeko beste bide batzuk badi-tu: zentsura mozioa (Nafarroako Gobernuko lehendakaria kargutik kendu eta beste bat izendatzeko prozesua) edo konfiantza eskaera (gobernua ordeztzeko bidea ematen duena).

Oinarrizko eginkizun horiez gainera, Nafarroako Parlamentuak lege proposamenak aurkez ditzake Gorte Nagusietan, senatari autonomikoa hauta dezake, konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsoak aurkez ditzake eta abar. Horrela, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako herria ordezkatzeko du, gobernu-lana zuzen gara dadin zaintzen du eta nafarren bizitza publikoaren zenbait alderdi antolatzen eta zuzentzen ditu, onesten dituen legeen bitartez.

10. Ariketak

GUTXIENKO IBILBIDEA

Aurreko testua laburbildu, ondoko eskema erabiliz:

Nafarroako parlamentuaren eginkizunak

-

-

-

-

- Besterik:

Nafarroako Parlamentuak egiten duen lana printzipio batean oinarritzen da, publikotasunean: eztabaida ofizial guztien aktak egiten dira, eta eztabaida horiek, askotan, grabatu egiten dira. Printzipio horren aplikazioak bidea ematen du ikusteko Nafarroako Parlamentuak nola egiten duen lan (Internet bidez, irratian, telebistan, egunkarrietan) eta parlamentarien hitzaldiak entzun ahal izateko. Halaber, Nafarroako Parlamentuaren argitalpen ofizialen —Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala eta Bilkura Egunkaria— irakurketak bidea ematen du lantzen diren gaiei buruzko akordioak eta iritziak ezagutzeko.

Nafarroako Parlamentuak erregelamendu bat dauka, bere barneko funtzionamendua arautzen duena. Haren arabera, urtean zehar, bi bilkuraldi izaten dira: otsailetik ekainera eta irailetik abendura. Aparteko kasuetan ere bil daiteke, aldi horietatik kanpo.



11. Nola egiten da lan Nafarroako Parlamentuan?

Nafarroako Parlamentuko Mahaia Osoko Bilkura batean Nafarroako Parlamentuko Mahaia osoko bilkurak zuzendu eta koordinatzen ditu. Osoko bilkura horietan legeak onesten dira, Nafarroako Parlamentuaren eskumenei jarraituz. Mahaiko burua Nafarroako Parlamentuko lehendakaria da. Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak parlamentari guztiak (50) eta Nafarroako Gobernuako kideak hartzen ditu, parlamentariak izan nahiz ez izan. Nafarroako Parlamentuko kideek baizik ezin dute botoa eman.

Oro har, Nafarroako Parlamentua bilkura arruntetan biltzen da, astelehenetik ostiralera. Legegintzaldiaren hasieran hautatutako 5 parlamentarik osatzen duten mahai bat arduratzen da Nafarroako Parlamentuko gainerako organoen lanak zuzentzeaz. Mahaiko lehendakaria, gainera, Nafarroako Parlamentuko lehendakaria da eta Osoko Bilkurak zuzentzen ditu.

Parlamentari hautetsiek parlamentu-taldeetan biltzen dira. Talde horiek hauteskundeetara elkarrekin aurkeztu eta proiektu komun bat duten alderdi edo koalizio bateko kideek osatzen dituzte. Taldeek bulego bat daukate Nafarroako Parlamentuan bertan, lana zentralizatzeko.

Parlamentu-talde bakoitzak eledun bat izendatzen du. Parlamentu-talde guztiak ere eledun guztien batzarrari Eledunen Batzarra esaten zaio. Organo horrek Nafarroako Parlamentuko Mahaiari laguntzen dio erabakiak hartzen. Eledunen Batzarrean, erabakiak boto ponderatuaren sistema erabiliz hartzen dira. Eledun bakoitzak bere taldean zenbat parlamentari eduki, hainbeste boto izaten ditu.

Lege proiektuak edo lege proposamenak eztabaidatu, aldatu edo zuzentzeaz batzordeak arduratzen dira. Batzordeak dira gai ezberdinetan —etxebizitza, osasuna,

ekonomia eta ogasuna, landa garapena eta ingurumena, eta abar— espezializaturiko organoak, non proportzionalki ordezkaturata baitaude parlamentu-talde guztiak. Lege-proposamen edo -proiektuaren testua eztabaidatu ondoren, Osoko Bilkurara pasatzen da, eta bertan onetsi edo baztertuko da. Gainera, Batzordeek Gobernuaren zeregina kontrolatzen dute, horretarako galderak, jabeldurak eta abar eginez. Foru parlamentarietako informazio saioak ere eskatzen dituzte, eta haietara gobernuakide bat edo gehiago joaten dira.

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak eginkizunik garrantzitsuenak dauzka: legeak onesten ditu haiei buruz batzordeek prestatutako irizpenei jarraituz; Gobernuko lehendakaria hautatzen du eta Gobernuaren jarduna kontrolatzen du aurrekontuak onetsiz, galderen bitartez, zentsura mozioen bitartez; adierazpen instituzionalak berresten ditu gai publikoei buruz; Estatuarekin nahiz beste erkidego batzuekin eginkizunik hitzarmenak onesten ditu.

Nafarroako Parlamentuko batzorde bat

Batzordeetan, xehetasun guztiekin aztertzen dira lege proiektuak (Nafarroako Gobernuak aurkeztutakoak) eta lege proposamenak (parlamentarietako, udalek nahiz herritarrek aurkeztutakoak).



Nafarroako Parlamentuak bilkurarik egiten ez duen aldietan, Batzorde Iraunkor deritzon organo batek bermatzen du Legebiltzarraren iraunkortasuna eta bere eginkizunak betetzen segitzea. Ohiz kanpoko eta premiazko beharrezanek justifikatzen dute Batzorde Iraunkorren jarduerak. Batzorde horren lehendakaria Nafarroako Parlamentuko lehendakaria bera da, eta batzordekideek «boto ponderatu» deritzona daukate.

**11. Ariketak**


1. Sartu honako orrian: <http://www.parlamentodenavarra.es>. Hautatu zure lana zein hizkuntzatan egin nahi duzun. Aukeratu «Osaera eta organoak». Dokumentu batean, ondoko galderak kopiatu eta erantzun:
 - Zein pertsonak osatzen dute gaur egun Nafarroako Parlamentuko Mahaia?
 - Zein pertsona daude Eledunen Batzarrean?
 - Zenbat batzorde arrunt daude Nafarroako Parlamentuan?


2. Aipatu zein diren Nafarroako Parlamentuan dauden alderdi politikoak, bai eta hura osatzen duten parlamentarien kopurua ere. (Informazioa Nafarroako Parlamentuko webgunean lortu ahalko duzu).

12. Sintesia

Zer ikasi dut Nafarroako Parlamentuari buruz?

- Hiztegi hitzen sintesia: Ikasgela Birtualeko «Parliztegi» kontsultatu.
- Itxiera-mapa bat egin.





**13. Ebaluazioa.
Koebaluazioa**

1. Osatu taula hau:

	NAFARROAKO PARLAMENTUA
NORK HAUTATZEN DU	
ZENBATEAN BEHIN	
EGINKIZUN NAGUSIAK	

Ebaluazioa



2. Galdera laburrak:

- Honako hau da Nafarroako Parlamentuko parlamentarien kopurua:
- Osoko Bilkuretako Mahaian, zein daude Nafarroako Parlamentuko lehendakariarekin?
- Aipa itzazu lau alderdi edo koalizio Nafarroako Parlamentuan parlamentu-taldea osatu dutenak:
- Nork hautatzen ditu Nafarroako Gobernuko kontseilariak?
- Nork hautatzen du Nafarroako Gobernuko lehendakaria?

3. Honako hitz hauen esanahia azaldu:

- Demokrazia:

- Aurrekontua:


- Lege proiektua:

- Gobernu-programa:

4. Estatu edo erkidego batean, zein organok ordezkatzten dituzte botere exekutiboa, botere legegilea eta botere judiziala?

Nola baloratzen ditugu Nafarroako Parlamentuari buruz eginiko ikerketa eta Ikasgela Birtualaren erabilera?

Koebaluazioa
(Ikasgela-taldeak egin beharreko ariketa)



Zein helburu lortu ditugu Lan-irtenaldiarekin bitartez eta Nafarroako Parlamentuaren eginkizunak aztertuz?

Zein zailtasun topatu ditugu?

Zein izan dira gure indarguneak eta lan honek izan duen onena?

Zein proposamen eta iradokizun egin ditzakegu lan hau hobetzeko?



PARLAMENTO DE NAVARRA
NAFARROAKO PARLAMENTUA